



Leire Benito del Valle
Aixerrota BHI, 15-16

AURKIBIDEA

Alberto Ladron Arana 2

Sarrera 2

Ahaztuen mendekua

Kokapena 3

Gaia 3

Argumentua 4

Istoriaa 4

Pertsonaiak 6

Egituraketa 7

Baliabideak 7

Iritzia 8

Bibliografia - Webgrafia 9

Alberto Ladron Arana

Alberto Ladron Arana 1967an Iruñean jaiotako euskal idazlea da. Maisutza eta psikologia ikasi zuen. Bere lehen eleberria *Fantasiaren eremukoa* izan zen. Geroago, 2001ean hain zuzen ere, *Itzalaren baitan* eleberria argitaratu zuen, eta honen ondorioz, Irun hiri saria irabazi zuen. Urte berean, Agustin Zubikarai saria irabazi zuen *Xake mate* nobelarekin. Bere hurrengo lanekin genero beltzean murgiltzen hasi zen eta misterio alorra landu zuen bereziki; 2004an



Eguzki beltzaren sekretua, 2006an *Arotzaren eskuak*, 2009an *Ahaztuen mendekua*, 2011n *Zer barkaturik ez*, 2012an *Piztiaren begiak* eta 2014an *Harrian mezua*.

Sarrera

Ahaztuen mendekua Oskar Aristuk bere emaztearekin Iratin egindako txango batean ondoren, Anaren desagertzearen inguruan egiten duen ikerketa kontatzen digun nobela bat da. Ikerketa aurrera doan heinean Oskarrek bere emaztearen hainbat sekretu aurkitzen ditu, honen desagertzea eta heriotza ulertzen lagunduko diotenak. Laburbilduz, nobela zirraragarria da, irakurtzea gogoko duen edonorentzat gomendagarria.

Arotzaren eskuak

Kokapena

Obraren zati gehiena Nafarroan kokatzen da, batez ere Oskar eta Ana bizi diren herrian. Hala ere, leku garrantzitsuena Irati dela esan daiteke, bertan hasten delako istorioa. Izan ere, han Ana desagertzen da eta honek Oskar ikertzean hastea eragiten du. Horrez gain, Iruñean eta Ezpeletan ere hainbat pasarte gertatzen dira, baina Oskarrek eta Xabierrek hainbat tokitara bidaiatzen dute euren ikerketan.

Garaia idatzi zenekoa-edo da (2009), erabiltzen duen teknologiaz gain nobelaren azken orrialdean data jartzen duelako: “ Iruñea, 2009ko otsailak 3” (220).

Lehenago esan bezala, gai nagusia Anaren desagerpena eta honen inguruko ikerketa da, baina azpigaiak lagunen arteko erlazioak edo bikote harremanak dira, besteak beste.

Pertsonaiarik garrantzitsuenak Oskar (istorioko protagonista), Ana (Oskarren senarra) eta Xabier (Oskarren maitalea) dira, baina badaude horrenbesteko garrantzirik izan gabe istorioan eragin handia dutenak: Armentia (Anaren kasuaz arduratzen den polizia) eta Goikoetxea (Anaren lankidea eta laguna).

Gaia

Eleberrian hainbat gai jorratzen dira, garrantzitsuena Anaren desagerpenaren eta hilketaren ikerketa izanik. Baina, horrez gain, beste hainbat gai tratatzen dira: alde batetik, bikote harremanak (Anaren eta Oskarren harremana); eta, bestetik, Oskar eta Xabierrena, lankideen arteko harremana eta lagunen arteko erlazioak.

Argumentua

Anak Oskar berarekin ez dela leiala izan jakin ondoren, eztabaida gordina izan dute Iratin. Liskarraren ondoren, basoan desagertuko da Ana. Gertatutakoaren errudun joko duten beldurrez, Anaren desagertzea ikertzen hasiko da Oskar. Denbora gutxira Anaren gorpua topatzen du poliziak Oskarrek susmagarria izateari utziz, baina horrek ez ditu Oskarren ikerketak gelditzen. Egunek aurrera egin ahala, Oskar gero eta froga gehiago aurkitzen doa, azkenean hiltzailea topatu arte.

Istoria

Oskar eta Ana Iratiko basora joaten dira txango baterako eta han liskarrean hasten dira, Anak Oskarrek Xabierrekin engainatzen duela jakin baitu. Haserretuta, emakumea bere senarra jipoitzen hasten da eta honek golpea itzultzen dio. Orduan, Ana mendian barrena abiatzen da eta Oskar autora itzultzen da, emakumeari han itzaroteko asmotan. Ana ez dela itzultzen ikustean eta negua izanik, iluntzen hastean Oskarrek poliziari deitzen dio.

Polizia iristean ikerketa hasten dute, eta Armentia inspektoreak Oskar hartzen du susmagarri nagusitzat. Gauzak horrela, Oskarrek bere kabuz ikertzen hastea erabakitzen du bere burua garbitzeko asmotan, errudun sentitzen baita bere emaztearen desagerpenagatik. Miatzeari ekitean, Xabierren laguntzaz, ezabatua izan zen GPS programa bat aurkitzen du Anaren ordenagailu eramangarrian. Hori dela eta, Anak desagerpena antolatu duela pentsatzen hasten da baina, Armentiak ez dio sinesten. Dena dela, Oskarrek ikertzen jarraitzen du eta beste lorpen batzuk egiten ditu. Oskarrek Anaren ia 3.000 euroko transferentziaren berri izateaz gain, bere emazteak mendiko motor bat erosi duela topatzen du. Horrek guztiak bere susmoak baieztatzen ditu, hots, Anak bere kabuz egin zuela alde, eta desagerpena izan zela sinetsarazi nahi ziela guztiei Oskar bere hilketaren erruduntzat jo zezaten, Xabierrenaren mendeku modura.

Egun batzuk geroago, poliziak Anaren gorpua aurkitzen du eta honek egoera erabat okertzen du, Oskar ziur baitzegoen Ana bizirik zegoela. Nahiz eta gorpua topatutako lekuaren ondorioz Oskarrek

susmagarri izateari utzi, Xabierrekin batera Anaren hiltzailearen bila aritzea erabakitzen du, bere heriotzaren errudun sentitzen delako. Ana abokatua zenez, bere kasuetan begiratzen dute, horietan erantzunak aurkitzeko itxaropenarekin. Kasu guztiak arakatu ondoren, Salustiano deituriko gizon batengana heltzen dira, erretiratuentzako etxe batean bizi dena. Gizon honen etxebizitzara joatea erabakitzen dute Oskarrek eta Xabierrek. Han ahizpa Maravillasekin hitz egiten dute, eta honek Anak Salustianorekin hitz egin zuela eta Salustino hilda dagoela esaten die. Gauzak horrela, Xabierrek eta Oskarrek Salustinoren arrebarekin hitz egitea erabakitzen dute erantzunak lortzeko asmotan baina, ez dute informazio berririk lortzen. Erabat lur jota, etxera itzultzen dira biak eta, orduan, Oskar Anak bere bezero guztiekin egindako elkarrizketak grabatzen zituela konturatzen da.

Etxera heldu bezain laster, grabazioa bilatzeari ekiten diote. Anaren ordenagailuko datu guztiak ezabatuak izan zirenez, gizonezkoak ez zeuden oso ziur grabazioa berreskuratzeko gai izan baziren. Baina, ordenagailuan miatzerakoan artxiboa topatzen dute eta elkarrizketaren zati batzuk entzuteko gai izaten dira. Grabazio horrek 36ko Gerrako fusilamendu batzuei eta gorpu horiek lurperaturiko lekuei buruz dihardu. Hori entzun ondoren, Gerrako fusilamenduak aztertzen hasten dira.

Geroago, konturatu dira Anak eramaten zuen kasu batekin loturik zeudela hildako horiek. Izan ere, enpresa batek fusilatu horien gorpuak zeuden lurretan urbanizazio bat egin nahi zuen. Ikertzen ari direla, ordea, jipoitu egiten dute Oscar eta Xabierrek erasotzaileri tiro egiten diolako lortzen dute bizirik irautea. Oskar egun batez ospitalean egoten da, baina handik irten bezain laster ikerketarekin jarraitzen dute.

Azkenik, konturatu dira eraikuntza enpresa hori fusilatu horiek hil zituen horietako batena dela, Beltza deitua, eta bere krimenak ezabatzea zuela helburu. Horretarako Anaren kasua alde batera uztea komeni zitzaienez, poliziak zioenez Anaren sozioarekin tratu bat egin zuten diru askoren truke Ana hil zezan. Goikoetxeak ordea, Ana hil ez zuela esaten du, baina haren aurka froga gehiegi daudenez, Armentiak Goikoetxea atxilotu egiten du.

Hala ere, bukaeran Xabier Anaren hiltzailea dela konturatzen gara, azken kapituluan bere ikuspuntutik kontatzen baitu gau hartan gertatutakoa. Ana gorrotoz hil omen zuen, Oskarri egin nahi zionaren berri izan zuelako.

Pertsonaiak

- **Oskar Aristu**

Istorioko protagonista da gizonezko hau. Idazle lanetan aritu nahi du, nahiz eta lanean ari den nobela oraindik hasi ez duen. Anaren senarra izan arren, Xabierrekin abentura bat du, hau da, homosexuala da eta Ana engainatzen du. Hain zuzen ere, hori da istorio osoaren abiapuntua, Ana Oskarren eta Xabierren artekoaren jakitun baitzen.

Egoeraren aurrean, Oskar beldurturik agertzen da askotan, eta errudun sentitzen denez, Anaren desagertzea ikertzeari ekiten dio eta horrek obsesiora darama. Beraz, esan daiteke pertsonaia ahula eta menpekoa dela, berak nahi duen bezala bizitzeko adorerik izan ez duena, Xabier ezkutatu.

- **Ana Urdirotz**

Nahiz eta Ana istorioan oso gutxi agertu, gainerako pertsonaiek dituzten elkarrizketen eta pentsamenduen bidez dugu beraren berri. Oskarren emaztea da, abokatu lanbidez. Bera da bikotean erabakiak hartzen dituen, baita dirua etxera eramaten duena. Oso pertsona mendekatia da, hori dela eta Oskarren abenturaren berri duenean prestatzen du bere desagertzea.

- **Xabier Lakarri**

Oskarren maitalea da, bere homosexualitateaz harro dagoena. Azken kapituluan agertzen zaigunez, institutu garaiko burlak jasan behar izateaz gain, txikitan apaiz batek bortxatu egin zuen, eta horrek jendea gorrotatzera eraman zuen. Beraz, pertsonaia oso gatazkatsua da.

Egituraketa

Oro har kontaketa lineala da, Anak egindako ikerketari erreferentzia egiten dioten flashback batzuk kenduta.

1936ko udazkena, nolana ere. Orduan hamazortzi urte nituen, eta nire adiskide Ferminen hamazazpi. Txoritan ari ginen, badakizu, karabinekin eta. Orain debekatutarik dago, baina garai hartan sekulako hamaiketakoak prestatzen genituen. Asteburu hartan Berriogoitiko neska batzuk gonbidatzekoak ginen eta... tira, horrek ez du axola, barkatu... (152)

Aipatu beharra dago, liburua 28 kapitulutan banatuta dagoela. Hala ere, esan daiteke istorioa bi zatitan bana daitekeela: Anaren bizitza eta Oskarrena. Izan ere, eleberrian zehar Anaren desagerpena, hilketa eta bizitzari buruz hitz egiten bada ere, protagonistaren bizitza pertsonala asko jorratzen da.

Baliabideak

Nobela prosazko lana da bereziki, hala ere, elkarrizketa ugari daude, pertsonaien arteko harremana nolakoa den asma dezagun. Horrez gain leku eta pertsona deskribapen ugari egiten ditu.

—Ikus dezaket zure nortasun agiria, mesedez?

—galdetu zion poliziak.

Oskarrek putz egin zuen.

—Jainkoarren, zer susmatzen duzu?

—Ezer ez. Egiatzen bat besterik ez dut egin nahi

(16)

Narratzailea orojakilea da, hirugarren pertsonan idatzita dagoelako istorioa eta honek gertatzen den guztia baitaki: pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak...

Fitsik ere ez zekien Ana eta Goikoetxearen arteko desadostasun haiei buruz, eta horrek lotsatu egin zuen, garbi adierazten baitzuen noraino urrundak ziren azken garaian. (115)

Narratzailea orojakilea izan arren, zenbait kasutan barne bakarrizketak aurki daitezke.

Ene zer pentsatu behar dute auzokoek? Tira, denbora kontua zen auzokoek aferaren berri jakitea. Auzokoek ahaideek eta adiskideek. Mundu guztiak. Ezinen diat presioa jasan, pentsatu zuen Oskarrek egongelara itzuli bitartean. (40)

Idazleak istorioa kontatzeko erabiltzen duen estiloa nahiko erraza da. Hizkuntzari dagokionez, euskara batuan idazten du bereziki, baina pertsonaiek bakarrizketak dituzten hainbat kasutan aldatu egiten du, euskalki hitzak edo hika erabiltzen baititu: “Alditxartuz gero, hil eginen naik, pentsatu zuen argitasun harrigarri.” (168).

Iritzia

Eleberri hau behin hasita, irakurtzeari utzi nahi ez zaion horietakoa da, berehala misterioan murgiltzen delako irakurlea. Gainera, oso luzea ez izateak, oso azkar irakurtzea ahalbidetzen du.

Hasteko, idazle berberaren beste eleberri bat aurretik irakurrita esan beharra dut obra hau gutxiago gustatu zaidala, hainbat alderditan antz handia dutelako, benetako hiltzailea libre geratzea esaterako. Horren ondorioz, istorioaren suspensea ez da amaierara arte mantendu, bukaeran zer gertatuko zen askoz lehenago konturatu bainintzen.

Bigarrenik, Idazleak beti egiten duen bezala, nobela honetan ere azken kapituluaren istorioari 360 graduko bira ematen dio, hasieran dituzun usteak ustelean geratuz. Baina, eleberri honetan istorioaren trataera hori ez du egoki lortu. Izan ere, nire ustez, azken kapitulu ez da egokia izan amaiera moduan, oso gaisetik landuta baitago. Azkenean, istorio osoa bertan laburtzen da, Xabierren ikuspuntutik, eta ezer gutxi esan daiteke lau edo bost orrialdeetan. Horren ondorioz, idazleak Xabierrek egindako ekintzen arrazoiak xehetasun handiagoz azaldu beharko zituzkeela uste dut, horrela istorioa hobeto ulertuko litzatekeelako.

Hala ere, eleberriak baditu alde positiboak ere. Alde batetik, ez du beste nobela beltzekin zerikusirik. Gehienetan gertatzen ari diren hilketak argitzen bakarrik saiatzen dira pertsonaiak, baina honetan, Anaren hilketa ikertzeaz gain, honekin loturiko beste krimen bat ere aztertzen dute. Bestetik, idazleak istorioan zehar tentsioa mantentzea lortu du. Nahiz eta, idazle honen beste obra bat irakurrita izan eta eleberria nola bukatuko zen susmatu; beste liburua irakurri izan ez banu, bukaeran zer gertatuko zen asmatzeko ez nintzela gai izango uste dut.

Laburbilduz, nire aburuz, eleberri oso entretenigarria da hau, aurretik esandako arrazoiengatik. Hori dela eta, edozein pertsonari gomendatuko nioke eleberri hau, nire ustez edonork disfrutatu dezakeelako nobela hau irakurriz. Hala ere, idazle honen beste obraren bat irakurri baduzu ez nuke nobela hau irakurriko, nire aburuz, nola amaituko den asmatzeko gai izango zarelako.

Bibliografia - Webgrafia

Ahaztuen mendekua, Alberto Ladron Arana. Elkar.

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/ahaztuen-mendekua/ahaztuen-mendekua.pdf>

<http://www.bostakbat.org/azkue/>

https://eu.wikipedia.org/wiki/Alberto_Ladr%C3%B3n

<http://www.itzultzailea.euskadi.net/traductor/portaIExterno/text-success.do>

<http://xuxen.eus>

<http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>